



2023ko INAUTERIAK

KARTEL LEHIAKETA

Lesakako Udalak lehiaketa deitzen du, 2023ko Inauteriak iragarriko dituen kartela aukeratzeko.

ARAUTEGIA

Kartelak kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz.

-Kartelaren neurriak: A2 / 420 x 594 mm.

Bertan, derrigorrez **2023ko INAUTERIAK LESAKAN otsailaren 16tik 21era** azaldu beharko da.

-Gaia: norberak nahi duena, zertarako den kontutan hartuta.

-Aurkezten diren lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dira.

-Parte-hartzaileak: Lesakan jaioak edo bertan erroldatutako 18 urtetik goitiko pertsonak izanen dira.

-Aurkezpena: lanak gutun-azal batean sartuta aurkeztuko dira udal bulegoetan. Gutun-azal honek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, gutun-azalean adieraziko dena. Gutun-azal horren barruan bertze sobre ttiki bat egonen da, itxita, eta bertan aurkezlearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatziko dira.

-Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu.

-Aurkezten diren lan guztiekin erakusketa bat osatuko da herriko Liburutegian, urtarrilaren 23tik 27ra (biak barne).

-Herri bozketak erabakiko du irabazlea, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Horretarako erakusketak irauten duen bitartean, bertan, Lesakan jaioak edo bertan erroldatuak direnak, bozketak egiteko aukera izanen dute aipatutako egunetan.

-Aurkezteko epea: urtarrilaren 20a, 13:00 orduak arte.

-Udala jabetuko da lan sarituez. Bertzeak itzuliko dira.

S A R I A

Kartel irabazleak 250 euro jasoko ditu.

Lesakan, 2023ko urtarrilaren 2a

Alkatea,

